

GUÍA DOCENTE

2021/22

Centro 231 - Facultad de Psicología

Ciclo Indiferente

Plan GPSICO20 - Grado en Psicología

Curso Indiferente

ASIGNATURA

25039 - Norma y Uso de la Lengua Vasca

Créditos ECTS : 6

DESCRIPCIÓN Y CONTEXTUALIZACIÓN DE LA ASIGNATURA

Esta asignatura se imparte únicamente en euskera.

Psikologia graduko ikasleek hizkuntza eta komunikazioa ondo menderatzeko premia dute, bai gradua egin bitartean eta baita ikasketak amaitu eta lan-munduan barneratzean ere. Gradua egiten ari direnean, batetik, Gradu Amaierako Lana idazteko eta aurkezteko beharko dute euskaraz zuzen eta egoki aritzeko gaitasuna; bestetik, nahitaezko praktikak egiten ari direnean oso baliagarri izango zaie euskaraz argi eta txukun komunikatzeko gaitasuna. Gradua amaitzen dutenean, Psikologia ikasleek askotariko bideak hartuko dituzte: osasunaren alorra, hezkuntzarena, enpresa mundua, akademia eta ikerketa, eta beste hainbat. Horietan guztietan eskatuko zaie hizkuntza ondo menderatzea eta argi eta zehatz komunikatzeko gai izatea. Beraz, berebiziko garrantzia du Psikologia ikasleentzat idatzizko eta ahozko komunikazioan, bietan, trebatzeak.

Euskararen Arauak eta Erabilerak (EAE) irakasgaia graduaren laugarren mailan eskaintzen da, lehenbiziko lauhilekoan, eta Komunikazioa euskaraz: Psikologia (KE) irakasgaiaren oinarria da nolabait, zeina gradu, maila eta lauhileko berean eskaintzen den. Hautazko irakasgaiak dira biak. Lehenengoan, hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko oinarrizko tresnak irakatsiko zaizkio ikasleari, eta arreta jarriko zaie euskaraz psikologiari buruz idaztean sortzen diren traba eta arazoei. Bigarrenean, gehiago sakonduko da hizkera teknikoan, psikologiako terminologian, testu-sorkuntzan eta psikologiaren alorrean hizkuntzak dituen premia berariazkoetan.

Irakasgai hau egiteko euskararen gaitasun-agiririk eskatzen ez bada ere, irakasgaia ondo jarraitzeko eta gainditu ahal izateko, gutxieneko maila bat izan beharko du ikasleak, idatziz nahiz ahoz komunikatzeko.

COMPETENCIAS / RESULTADOS DE APRENDIZAJE DE LA ASIGNATURA

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1. gaitasuna. Goi-mailako tituludunek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. gaitasuna. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea, hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia jomugan.
3. gaitasuna. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (berezi interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.

Gaitasun espezifiko horiek lantzeko erabiliko dugun metodologiaren bidez, Psikologia graduan zehazten diren honako ZEHARKAKO GAITASUN hauek garatuko ditu ikasleak:

C1CC10. Psikologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko, kudeatzeko, eguneratzeko, hautatzeko, aztertze eta laburtzeko gai izatea, espezializatutako informazio- eta dokumentazio-iturrietatik abiatuta.

G007. Maila pertsonalean, profesionalean eta zientifikoan modu eraginkorrean erlazionatzea eta komunikatzea, eta banaka nahiz diziplina bakarreko zein anitzeko taldeetan lan egiteko gai izatea, ardurak hartuz eta jarduerak modu kritikoa baloratuz.

G009. Modu autonomoan ikasteko eta etengabeko ikaskuntzaren garrantzia baloratzeko gai izatea, lanbidearen mesederako diren gaitasunak eta ezagutzak eguneratzeko, eta ezagutza psikologikoari ekarpena egiteko.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

EDUKI TEORIKOAK

1. GAIA: Komunikazio espezializatua giza eta gizarte-zientzietan
 - 1.1. Hizkuntzaren aldaerak eta erabilerak
 - 1.2. Euskararen aldaera estandarra: euskara batua
 - 1.3. Euskara espezializatua
 - 1.4. Kontsulta-tresnak: corpusak, hiztegiak, kontsulta-guneak

2. GAIA: Testuak psikologiaren alorreko komunikazio-prozesuetan

- 2.1. Psikologiaren testu-genero nagusiak
- 2.2. Idatzizko komunikazioa Psikologian
- 2.3. Ahozko komunikazioa Psikologian
- 2.4. Testuaren egituraketa: argudioak eta testu-antolatzaileak

3. GAIA: Hizkuntza espezializatua Psikologian: bereizgarriak eta arazoak

- 3.1. Aldakortasuna
- 3.2. Terminologia zaindua: maileguak eta hitz-elkarketa
- 3.3. Estilo zaindua: estilo-gomendioak

EDUKI PRAKTIKOAK

Gelako saioetan, hiru eratako lanak egingo dira: ariketak, idazlana eta ahozko aurkezpena.

- Ariketak. Gelan landutako gai bakoitzari ariketa sorta bat egokituko zaio. Ikasleek gelan edo etxean egingo dituzte ariketa horiek, batzuetan banaka eta beste batzuetan taldeka.

- Idazlana. Nork bere ikasketa- edo ikerketa-gaiarekin loturiko testu idatzia prestatu beharko du, gelan jorratutako gaiak kontuan izanda: Psikologiako testuen bereizgarriak, egituratzea, hizkuntza espezializatua eta estilo zaindua.

- Ahozko aurkezpena. Testu idatzia oinarri hartuta, ikasleek ahozko aurkezpena prestatu beharko dute, gelan landutako ezaugarriak kontuan hartuz.

METODOLOGÍA

Eskola gehienak praktikoak izango dira, eta eduki teorikoa ere arazo praktikoei hobeto aurre egiteko emango da. Irakasleak eGela erabiliko du irakasgaiko materiala ikasleen eskura jartzeko, eta ikasleek ere plataforma horretara igo beharko dituzte egindako lanak. Eskolak, ahal dela, ordenagailu-gelan egingo dira, ikasleak ordenagailua eskura izan dezan uneoro, kontsulta-baliabideak erabili ahal izateko.

Hainbat eratako metodologia baliatuko da gaitasunak garatzeko eta irakaskuntza-emaitzak lortzeko:

- Banakako jarduerak eta lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (ariketetan jorraturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

TIPOS DE DOCENCIA

Tipo de Docencia	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Horas de Docencia Presencial	30		10		20				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	25		45		20				

Leyenda:	M: Magistral	S: Seminario	GA: P. de Aula
	GL: P. Laboratorio	GO: P. Ordenador	GCL: P. Clínicas
	TA: Taller	TI: Taller Ind.	GCA: P. de Campo

SISTEMAS DE EVALUACIÓN

- Sistema de evaluación continua
- Sistema de evaluación final

HERRAMIENTAS Y PORCENTAJES DE CALIFICACIÓN

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak. 100%

CONVOCATORIA ORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Ebaluazio jarraitua izango da irakasgaiaren ebaluazio-tresna nagusia, hark izango du lehentasuna.

ETENGABEKO EBALUAZIOAN, hiru lan hauek gainditu beharko dira:

1. Gelan egindako froga idatzia (3 puntu)
2. Idazlana (3 puntu)
3. Ahozko aurkezpena (3 puntu)

- Batez besteko kalifikazioa egin ahal izateko, hiru atalak gainditu behar dira.
- Kalifikazioa osatzeko falta den puntua, gelan egindako ariketen arabera lortuko du ikasleak.
- Ebaluazio jarraitua egin ahal izateko, gelako saioretara etorri behar du ikasleak (gutxienez, % 80ra), eta gelako ariketa eta lan guztiak egin beharko ditu behar den garairako eta egoki. Hori dela eta, arrazoi bereziren batengatik eskolaren batera joaterik izan ez duen ikasleak etxean egin beharko ditu eskola horretako zereginak, eta garaiz bidali.

Irakasgaia ebaluazio jarraituaren bidez gainditzen duen ikasleak ez du azken ebaluazioko azterketarik egin beharrik izango.

* Ebaluazio jarraituari uko egitea

Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duen ikasleak nahiz hasieratik azken ebaluazioko azterketaren bidez ebaluatua izatea aukeratzen duen ikasleak eskubidea izango du azken ebaluazioko azterketa egiteko (ebaluazioaren % 100). Eskubide hori baliatzeko, ikasleak idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasleari, etengabeko ebaluazioari uko egiten diola adieraziz, lauhilekoaren hasierako 9 asteen barruan (1.-9. asteetan). Halako idatzirik aurkeztu ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

AZKEN EBALUAZIOKO AZTERKETA lauhilekoaren amaieran egingo da, zentroak ezarritako egunean eta orduan. Idatzia eta ahozkoa izango da, eta % 100eko balioa izango du. Ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoen lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko.

Azterketan lortutako nota izango da kalifikazioaren % 100, honela banatuta:

- Ariketak (4 puntu)
- Idazlana (3 puntu)
- Ahozko aurkezpena (3 puntu)

Ahozko aurkezpena azterketa-egunean bertan egingo dute ikasleek, idatzia bukatu ondoren. Aurkezpena egin ahal izateko, eGelara igo beharko dute euskarria aurrez.

* Ohiko deialdiari uko egitea

UPV/EHUko Ebaluaziorako arautegiko 12.2 artikulua arabera, ohiko deialdiari uko egiteko, nahitaezkoa da lauhilekoa bukatu baino hilabete lehenago irakasleari idatzi bat helaraztea ukoa jakinarazteko.

PANDEMIAREN BILAKAERAREN ONDORIOZ, EBALUAZIO EZ-PRESENTZIALA EGIN BEHARKO BAGENU:

- Ebaluazio jarraiturako tresnak eta ehunekoak berak izango lirateke, nolahi ere zeregin batzuk gauzatzeko modua aldatuko litzateke, halabeharrez.
 - o Proba idatzia etxetik egingo lukete ikasleek, eGelaren bidez.
 - o Ahozko aurkezpena Blackboard Collaborateren bidez nahiz bidez grabatuta egitea izango lukete aukeran ikasleek, aurrez aurre egin beharrean.
- Azken ebaluazioko azterketako tresnak eta ehunekoak berak izango lirateke, baina zereginak gauzatzeko modua egokituko genuke, halabeharrez. Azterketa eguneko proba bakarraren ordean, hiru proba egingo lituzkete ikasleek:
 - o Idazlana: azterketaren egun ofizialerako egin beharko lukete, emandako jarraibideen arabera.
 - o Ahozko aurkezpena: aurrez prestatu eta azterketa egunean bertan edo adostutako beste hitzordu batean (betiere azterketa eguna baino lehen) egin beharko lukete Blackboard Collaborateren bidez, edo grabatuta bidali.
 - o Irakasgai landutako gai buruzko ariketak: azterketa egunean bertan egingo lituzkete eGelaren bidez, denbora mugatuan.

CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Irakasgaiaren % 100 azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoen lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkeztzen diren ikasleek, azterketa-egunean bertan, idatzia bukatu ondoren. Aurkezpena egin

ahal izateko, eGelara igo beharko dute euskarria aurrez.

Ohiko deialdiko azterketaren egitura bera izango du; hau da, hiru atal hauek:

- Ariketak (4 puntu)
- Idazlana (3 puntu)
- Ahozko aurkezpena (3 puntu)

PANDEMIAREN BILAKAERAREN ONDORIOZ, EBALUAZIO EZ-PRESENTZIALA EGIN BEHARKO BAGENU:

Probaren zereginak berberak izango lirateke, eta baita ehunekoak ere, baina horiek gauzatzeko modua egokituko genuke, halabeharrez. Azterketa eguneko proba bakarraren orde, hiru proba egingo lituzkete ikasleek:

- Irakasgaien landutako gaiei buruzko ariketak: azterketa egunean bertan egingo lituzkete eGelaren bidez, denbora mugatuan.
- Idazlana: azterketaren egun ofizialerako egin beharko lukete, emandako jarraibideen arabera.
- Ahozko aurkezpena: aurrez prestatu eta azterketa egunean bertan edo adostutako beste hitzordu batean (betiere azterketa eguna baino lehen) egin beharko lukete Blackboard Collaborateren bidez, edo grabatuta bidali.

MATERIALES DE USO OBLIGATORIO

Irakasleak eGelan eskuragarri jarritako apunteak, artikulak, ariketak eta abar, eta ikasleak berak lanak egiteko beharko dituen baliabideak. Irakasleak eGelan jarriko ditu material horiek, astean-astean. Horrez gain, Egunerokoa izango du eskuragarri ikasleak eGelan, eskolaz eskola landutakoaren jarraipena egin dezan.

BIBLIOGRAFÍA

Bibliografía básica

- ALBERDI, Xabier & Iñaki Ugarteburu (1999): Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa. Bilbo: EHU.
- ENSUNZA, Mitxel, ETXEBARRIA, Jose Ramon eta ITURBE, Jazinto (2002): Zientzia eta teknikarako euskara: zenbait hizkuntza-baliabide. Bilbo: UEU
- EUSKALTZAINDIA-JAGON SAILA (CORPUS BATZORDEA) (2008): Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (2018): Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161.
- EZEIZA RAMOS, Joseba; Izaskun ALDEZABAL ROTETA; Agurtzane ELORDUI URQUIZA; Igone ZABALA UNZALU; Iñaki UGARTEBURU GASTAÑARES; Kristina ELOSEGI ADURIZ (2010): PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. UPV/EHU: <http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>.
- GARZIA, Joserra (2008): Jendaurrean hizlari. Irun: Alberdania.

Bibliografía de profundización

- ALBERDI, Xabier eta Sarasola Ibon (2001): Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia. Bilbo: EHU. BERRIA (2006): Estilo liburua. Donostia: Berria. (Sarean ere badago: <http://berria.eus/estiloliburua/>).
- CALSAMIGLIA, Helena & Amparo TUSÓN (1999): Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso. Barcelona: Ariel.
- EUSKALTZAINDIA (1985-2005): Euskal Gramatika, Lehen Urratsak I-VI. Bilbo: Euskaltzaindia.
(<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/gramatika/eglu-dokumentuak>)
- EUSKALTZAINDIA (1993): Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Bilbo: Jaurlaritza.
- GARZIA, Juan (1997): Joskera lantegi. Gasteiz: HAEE-IVAP.
- GARZIA, Juan (2005): Kalko okerrak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- HAEE/IVAP (1994): Hizkera argiaren bidetik. Gasteiz: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP). HAEE/IVAP (1997): Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. Gasteiz: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).
- HAEE/IVAP (2003): Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez. Gasteiz: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE/IVAP).
- SARASOLA, Ibon (1997): Euskara batuaren ajeak. Irun: Alberdania.
- ZABALA, Igone (2000): "Hitz-hurrenkera euskara tekniko-zientifikoan". Ekaia 12: 146-166.
- ZABALA, Igone (2000): "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak". Ekaia 13: 105-129.
- ZUAZO, Koldo (1985): Euskararen batasuna. Iker 5. Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZUAZO, Koldo (2005): Euskara batua. Ezina ekinez egin. Donostia: Elkar.
- ZUBIMENDI, Jose Ramon eta ESNAL, Pello (1993): Idazkera liburua. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila.

Revistas

- ELHUYAR. Zientzia eta Teknologia aldizkaria. <https://aldizkaria.elhuyar.eus/>
- GOGOIA. Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazio eta Ekintzari buruzko aldizkaria.

<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/Gogoa/index>

JAKIN. <https://www.jakin.eus>

UZTARO. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria. UEU: <http://www.uztaro.eus/>

Direcciones de internet de interés

-Elhuyar: <http://zientzia.eus/>

-Euskalterm: <http://www.euskara.euskadi.eus/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do>

-Euskaltzaindia: <http://www.euskaltzaindia.eus>

-<http://www.hiztegia.net/>

-Euskara Institutua: <https://www.ehu.eus/eu/web/eins>

-Kalkoen Behatokia: <http://www.ehu.eus/ehg/kalkoak/>

-Euskara Zerbitzua: <http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.es/>

-UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetza: <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara> -
EHULKU aholkularitza-zerbitzua <http://www.ehu.eus/ehulku/>

-EHULKUren aholkuak <http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/ehulkuren-aholkuak>

-EHUskaratuak <http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

-GAIKA <http://gaika.ehu.eus/eu>

-EIMArean estilo-liburua: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-
euskcont/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-euskcont/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)

-Garaterm: http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/

-Hizkuntza Politika (Eusko Jaurlaritza): <http://www.euskara.euskadi.eus>

-UZEI: <http://www.uzei.eus>

-31 eskutik (EIZIE): <http://31eskutik.com/>

-euskalbar: hiztegi eta corpusak

OBSERVACIONES

Hemen jasotakoez gain edo jasotakoaren orde, irakasleak beste aukeraren bat proposa diezaieke ikasleei, aurreikusitako helburuak betetzen direla egiaztatzeko; betiere, taldearen baldintzek ahalbidetzen badute.